

KONTU-KONTARI**HEGOAK TALDEA,
LAPURDIKO KANTUAREN AITZINDARI**

Euskal kantua arrapizte aroan dela erran daiteke, eta horretan eragile handiak izan ziren 70eko hamarkadan, Euskal Herri osoan sortu eta zabaldu ziren taldeak. Horietako bat dugu *Hegoak* taldea Lapurdin itzal handia utzi zuen talde gaztea. 1975ean sortu zen Donibane Lohizunen. Aitzineko hamarkadan *Alegera* taldeak Lapurdiko bazterrak alaituak zituen euskal kantuaren xarmaz. Ziburun bazen ere *Arrantzaleak* taldea luzaz iraun zuena eta Lapurdiko kostaldean erabateko eragina eta arrasto sakona utzi zituen talde alai eta miresgarria.

Baina inor betiko ez denez, *Alegera* taldea 70.eko hamarkadaren hasieran desegin eta desagertu zen Lapurdin hutsune handia utziz. Talde horren errautsetatik bi talde sortu zirela erraiten ahal da, *Alegeran* ibilitako hainbat kantarik eta musikarik parte hartu baitzuten *Hegoak* eta *Eltzegor* taldeen sorkuntzan. Lehenak musika herrikoia egiten zuen eta bigarrenak musika militantea. *Hegoak* taldeak hamabost bat urte iraun zuen eta 90eko hamarkadaren hasieran desagertu zelaririk, hiru disko, ehunka kontzertu eta garaiko gazteen artean arrasto eta oroitzapen handia utzi zituen. Gaur egun, oraindik ere, kantu ainitz *Hegoak* taldeak eginiko aireaz, aldaeraz edo soinu bereziaz kantatzen dira Lapurdi osoan.

— Gure Sort-Herria biziki maite dugu. Suerte-aren Maitasuna. Hainbeste Euskal kantu taldeekin,



« Gure lehen desira : lagun talde on bat izaitze, sort-herria maite ta maite duena... »

haundia badugu lana herrian izaitzeko. Nahi dugu gure kultura begiratu. Eta iduri zaiku kantuearekin osoki zaintzen dugula. Jende guziet, nahi ala ez, entzuten dute kantua; eta Euskal kantuek jakinarazten du munduari euskaldunak badirela.

● Zer erakaspen daukate zuen kantuek ?

— Bixtan dena, nahi dugu publikoa airostu gure kantu batzuekin. Gure bozak laguntzen ditugu akordeon bat eta bi gitarren soinuarekin. Nolan behin kantu batzuekin nahi dugu partika-arazi

Euskal-Herriak badauzka langile segurak bere karraren bizi-arazetako.

Hegoak taldeak erakutsi dauku zer talendu haundiarren jabe duen; erakutsi ere talendu hau ezarria duela Herriaren eta Euskaldunen zerbitzuko. Talde guziak jakin dezala orroitzapen ederra utzi duela bere pasaiatz, jakinez gutartekoak agertzen. Ene gutizia da segi dezazuen aintz urtez zuen kantuarren lan ederra.

Maurice ETCHENIC.

sonarra eta semea, biak han nonbait bi lekutan, palaranetan, eta biak beren herriaren gatik. Baina hiru bihotzetarik jona, zurea; zuhuk ditozun bezala, ama ez denaren bihotzak ez daki zer den sofriztea. Basterreirikako zurruntzak bestalde; etxekoen falta ere badela, aski zintela « ontza gobernatzea »... « guk bezala »... edo... « horra zertaritzen dituen beren eskarak »...

Ai! zuk bai, ama, badakituela « jende plantakoen » ele-melesko ausikiaren berri, beren leihua arteko behako zifera eta bat-bateko ixilfasan madarikatuakin!

Bizkitartean, bazooz aintzina bidean, ez buru-xut ez buru-apal, baina zure hartan zuzen eta traberik. Gasto gastezik egin eta jasaneak badizite holako bat erakatsirik.

Lehenik, gasteak ernatzen hasten diren bein barriakotz, zu ere maitasun-haitzak aire-biraka eroman sintzeazkoen sasolan, begiatatu zinuon suertez izar bat zure gidari.

Izar hura ez zoon ez eskuin ez eker, ez aintzin ez gibel. Hor zagoen zure gainean, izatua baina diridiroa.

Zure izarrak, ama, ez zaitu egundaino errebelatu: homen dela zure lekua, horra zer dituzun erakatsi. Baina leku hori ez dela ez nola-nahika betetzeko; zure euskal bihotzak jakin du beltik nola lili eta nolako izan; zure amaren altzotik bildu guzian lagirale, eta halere mundu herri baten egile, orobat edot bereko bihotzen sortzaila ta moldatzaila.

Otsailako horma-karroienean iguzkitera bezala, urresko diridraz diridratzen dutenak, ama, guretzat, zure lailafasun, iraupen eta fedea.

Maurretan aldi, izan ditake mentozar bodesko diren oraino agertzen zure eraltzarren fruituak. Baina erain duenak esparantzaz bederen badauzka. Bastez zer dute ? ...

Hau baltzinuein, ama, zuk izarra: « Ama gure Herria ». Eta haren izarra zuki!

E. L.



Talde horretan gazte franko ibili ziren hogeitaz hamar urte horietan, horietako batzuk aski ezagunak direnak: Olaizola bi anaia ziburutarrak, Beñat Elizondo, Xerar Urrutia eta Jean Marie Imaz urruñarrak, Ramuntxo eta Filipe Douat anaiak, Mixel Claudio eta Franzis Zozaia donibandarrak, Robert Pagola ezpeletarra, Gérard Etxeberry kanboarra, Txomin Xori baigorriarra, Jean Louis Berges, Jakes Gain, Marko Darrak,... eta beste zenbait.

Hegoak taldea osatzen zuten gazteen xedea euskal kantua eta giroa piztea zen. 1978an *Hegoak* izeneko diskoa plazaratu zuten *Agorrila* argitaletxearen bitartez, laster arrakasta itzela ukan zuena. Diskoaren hasieran, honako aldarria zabaldu zuten taldearen aurkezpen gisa: “*Hegoak edo hegialak, askatasunaren hegialak, dotzen(a) baten lagun artean egina dugu diska hau, zeren eta maite dugu euskal kantua eta ororen gainetik Euskal Herria*”. Lehen kantua Mikel Laboaren *Txoria txori* zen, beraiek *Hegoak* izenaz birbataiatua. Kantu honek eman zion izena taldeari eta taldeko gazteek egin zuten, beraien aldaeraz, famatua Iparralde osoan.

Kantu honetaz gain, Euskal Herriaren bi aldeetan ospetsuak ziren beste honako kantuak gehitu zituzten: *Nire gitarratxo, Euskal Herria, Gure bide galduak, Luther King, Erronta zaharra, Ez, ez dut nabi, Ottia, Eskualdun seme, eta porru salda eta fandango bana*. Duela lauzpabost bat urte, *Agorrilak* bigarren edizio bat plazaratu zuen.

Handik bizpahiru urteetara, *Hegoak* – 2 izeneko diskoa grabatu zuten Milafrangako estudio batean. Aurreko diskoko kantu gehienak herrikoiak ziren edota orduko abeslari eta kantugileek egindakoak, baina bigarren disko honetan beraiek egindako kantuekin diskoaren erdia bete zuten. Honako kantuak agertu ziren bigarren diskoan: *Negua, Haurra, Pena dut eta dolore, Nevadarat, Bagare, Nafarra, Gitarra zabartxo bat, Azken antzira, Amets bat mendian* eta *Nere andre ona-*

kin. Horietako kantu bat –*Pena dut eta dolore*– zaharra zen, Xerak Urrutiaren Maddi Jorajuria amak kantatzen zuena, eta taldeak berriz arrapiztu zuena.



Hirugarren diskoa *Bizia* izenaz bataiatu zuten, eta bigarrenaren ildokoa zen. Biarnoko Leon herriko estudio batean grabatu zuten. Honako kantuek azaldu ziren disko honetan: *Bizia*, *Zakurra*, *Haurra sehaskatxoan*, *Izartegi*, *Negu luze hotzetik*, *Iraultzak*, *Erotasunean eta Parisen eta Madrilen*.

Erotasunean izeneko kantuan Euskal Herriarekiko atxiki-mendua garbi azaldu zuten. Hitzak Xerak Urrutiarenak ziren eta soinua Mixel Claudiorena. Hona hemen kantuaeren lau koblak:

*Gau ilunen gizona naiz,
ilunpean sortua bainaiz,
eta ilunpean naiz hilgo,
nabi nuke egon beti lo.*

*Eroaldik nau barrapatzen,
bista adimenduak ditut galtzen,
nere urratsak daude andarka,
burua zaut hausten marteluka.*

*Ikusten ditut zakurrak,
bortz haundikin errabiatuak,
Euskal Herriri ausikika,
ezin xebaturuz zatika.*

*Ramun, Txomin nun zaudezte?
Gure eki gidatzaile,
biok itxaropen ume,
nahiz (nabi izanez) herri askatzaile.*

Eta errepikan honela zioten:

*Nere ilunak argia nundik,
badago argirik?
Nere burua dago sutan,
zapartatzeko puntan.*

Ramuntxo eta Txomin izan ziren bonba batek zapartaturik hil ziren IK-ko bi gazte, erori ziren lehenak eta kantua haien omenez egina zen.



Hegoak taldea Iparraldean kantari ibili bazen ere, Hegoaldera ere ainitzetan pasatu zen, eta atzerrian ere beren kontzertuak eman zituen, adibidez: Alemaniako Sulbach a Main hirian, Pariseko *Mutualité* izeneko aretoan Niko Etxarten kontzertuaren lehen zatian, Grezian... eta abar.

90eko hamarkadaren hasieran taldea desegin zen istorio eder bat gibelean utzirik, gaur oraino, orduan gazte zirenen oroitzapenetan bizirik dirauena. Eragin handia izan zuten hamarkada haietako kantagintzan eta euskal giroa pizteko abilki jokatzeko jakin zuten. Talde honen desagerpenak hainbat kimu piztu zituen, gaur egun, euskal kantuaren inguruan dabilzanak: Beñat Elizondo, Xerar Urrutia eta Jean Marie Imaz *Kuxkuxtu* txaranga, Xerar Urrutia bakarka –jadanik bi disko plazaratu dituena–, Douat anaiak *Kanta Donibane* talde herrikoian, Mixel Claudio Donibane Lohizuneko *Estudiantin*... eta abar.

Gaurko Lapurdin, euskal kantua indarrean dago, talde eta estilo franko daude, herri guztietan badira kantatzeko biltzen diren jendeak eta euskal kantua airoski aditzen ahal da nona-



hi eta noiznahi. Orainaldi aberatsa du eta iduriz geroaldi opa-roa izanen du. Hori dena, aitzinetik, beste kantariak, beste musikariak eta beste taldeek haien hazia lur emankorretan erein zutelako. Horietako bat izan zen *Hegoak* taldea, lerro hauetara ekarri duguna.

*Joseba Aurkenerena Barandiaran
Urruñan, 2019ko maiatzaren 19an.*